

6. gaia

Semantika

1

Semantika

- Semantika:
Gramatikan, esanahiaren arloa da.
- Baina, zer da esanahia, eta zenbat esanahi mota daude?

2

Semantika

- Esanahi lexikoa edo kontzeptuala:

Zera adierazten du:

Objektuak, gizakiak, animaliak, egiazko edo irudizko kontzeptuak, konketuak edo abstraktuak, ekintzak edo egoerak, ezaugarriak...

Izen, aditz, adjektibo eta adberbioen bitartez adierazten da.

3

Semantika

- Esanahi gramatikala:

Kategori lexikoei atxikitzen zaizkien ezaugarri ez-lexikoak (generoa, numeroa, espezifikitatea, kasua, denbora, aspektua, modua, bosa, esaldi mota, esaldien arteko erlazioak, besteak beste).

Esanahi gramatikala morfema gramatikalek adierazten dute, batez ere flexiodunek (determinatzaileak, izenordainak, kasu markak, fleziozko markak aditzetan, menderagailuak, juntagailuak).

4

Semantika

Baina esanahia ez dute hitzek bakarrik adierazten. Sintagmek eta esaldiek ere.

- Semantika:

Esanahi linguistikoaren arloa (esanahi lexikoa eta gramatikala), unitate sinpleen eta beraien arteko konbinaketen bitartez adierazitakoa.

5

Semantika

- Semantika lexikoa eta konposizionala.
- Semantika lexikoa: esanahi lexikoa duten hitzen ikerketa.
- Semantika konposizionala: esanahi gramatikala azaltzen saiatzen da. Esanahi gramatikala ez da bakarrik hitzei lotzen, baizik eta sintagma osoei ere (numeroa, adibidez, edo generoa) eta sintagmen artean ere (pertsona, adibidez, edo kasua).

6

Semantika

1) SEMANTIKA LEXIKOA

Tasun semantikoak, esanahi lexikoak osatzen dituztenak (adib.: [\pm biziduna], [\pm gizatiarra], [\pm femeninoa], [\pm heldua], etab.).

7

Semantika

Colorless green ideas sleep furiously.

Ideas [-konkretu] da, eta *green*-ek izen [+konkretu]ak modifikatzen ditu.

Colorless bateraezina da kolore bat adierazten duen adjektibo batekin.

Ideas [-bizidun], *sleep*-ek subjektu [+biziduna] behar du.

Furiously [+ekintza fisikoa] ezaugarria duten aditzekin doan adberbioa da, eta *sleep*-ek [-ekintza fisikoa] tasuna du.

8

Semantika

• Esanahiaren erlazioak

Hitzak hainbat erlazio semantikoen bitartez daude erlazionaturik.

Sinonimia, antonimia, hiponimia, meronimia.

9

Semantika

- Sinonimia

Bi hitz sinonimoak dira esanahi berdina baldin badaukate.

kartzela - *presondegi*

astiro - *poliki*

hautatu - *aukeratu*

hil - *zendu*

bukatu - *amaitu*

bukatu - *agortu*

baxu - *txiki*

10

Semantika

Sinonimia partziala izan daiteke, guztiz sinonimoak ez direnean. Hau da, testuinguru batzuetan hitz bat erabiltzen bada eta ez bestea.

hautatu - *aukeratu*

hil - *zendu*

bukatu - *agortu*

baxu - *txiki*

11

Semantika

- Antonimia

Bi hitz antonimoak dira kontrako esanahiak baldin badituzte.

altu - *baxu*

txiki - *handi*

hotz - *bero*

bizirik - *hilda*

barruan - *kanpoan*

gainean - *azpian*

saldu - *erosi*

sartu - *atera*

12

Semantika

a) Antonimia graduala

altu-baxu, txiki-handi, hotz-bero, argi-ilun, on-txar, ongi-gaizki, berri-zahar

b) Antonimia absolutua

bizirik-hilda, barruan-kanpoan

c) Antonimia elkarkaria

gainean-azpian, arinago-beranduago, aurrean-atzean, saldu-erosi, irakasle-ikasle

13

Semantika

- Hiponimia

Hitz baten esanahia beste baten esanahiaren barruan sartzen da. Hitz orokorragoa **hiperonimoa** da, eta hitz espezifikagoa **hiponimoa** da.

katu, txakur, lehoi, hartz, tximino, behi, etab.

hiponimoak dira *animalia* hitzarenak. *Animalia* **hiperonimoa** da *katu, txakur, lehoi, hartz, tximino* eta *behi* hitzena.

14

Semantika

Sagar, madari, kiwi, marrubi: fruta-ren hiponimoak.
Fruta: sagar, madari, kiwi, marrubi-ren hiperonimoa.

kalabaza, letxuga, tomate, azalore, porru, azenario, leka, espinaka: barazki-ren hiponimoak.

Barazki: kalabaza, letxuga, tomate, azalore, porru, azenario, leka, espinaka-ren hiperonimoa.

Amuarrain, legatz, bakailao, hegaluze, hegalabur: arrain-en hiponimoak.

Arrain: amuarrain, legatz, bakailao, hegaluze, hegalabur-en hiperonimoa.

Koloreak, lorak, etab.

15

Semantika

- Meronimia

Hitz batek beste hitz baten parte bat adierazten badu. Objektu edo kontzeptu osoa adierazten duena **holonimoa** da, eta parte **meronimoa** da.

Bizikleta - gurpilak, katea, eskulekua, koadroa, balaztak, pedalak

16

Semantika

- Polisemia:

Hitz batek esanahi bat baino gehiago izan ditzake, beraien artean erlazonaturik daudenak sustrai etimologiko berbera daukatelako. Esanahiek tasun batzuk konpartitzen dituzte.

Sinple

1. Sustantzia edo parte bakarrekoa.
2. Erraza, konplikaziorik gabekoa.
3. Inozoa.

17

Semantika

bide

1. Leku batetik bestera joateko igarolekua
2. Zerbait egiteko modua

18

Semantika

gorde

1. Gauza bat dagokion tokian utzi (babestuta).
2. Gauza bat segurtasuneko toki batean utzi (banketxean, kutxa gotorrean)
3. Ordenagailuan informazioa bildu
4. Babestu, defendatu

19

Semantika

- Homonimia

- Bi hitz berdin ahoskatzen direnak baina esanahi desberdinak dituztenak. Jatorri desberdinak, etimologikoki.

*banku*¹ 'bizkarralderik gabeko egurrezko eserlekua'
*banku*² 'finantza erakundea'

*duelo*¹ 'bi arerioen arteko aurka egitea'
*duelo*² 'norbaiten heriotzagatik mina'

*cura*¹ 'abadea'
*cura*² 'zauri edo gaixotasun bat tratatzeko prozedura'

20

Semantika

*don*¹ *don*²
*lava*¹ *lava*²
*vino*¹ *vino*²
*bala*¹ *bala*²

- Homonimia totala, hitzak klase berdinekoak badira (izenak, aditzak, adjektiboak, etab.): *duelo*, *banco*.
- Homonimia partziala, bi hitzak morfologikoki desberdintzen badira (adib., generoaren bitartez, *el cura* eta *la cura*) edo klase lexikoa (izena eta aditza, *lava*, *vino* edo *bala*).

21

Semantika

- Berdintasuna fonologikoa eta ortografikoa izan daiteke, aurreko kasuetan bezala.
- Orduan, zehaztu nahi badugu bi hitzen arteko berdintasuna ze mailatan dagoen, esan dezakegu hitz **homonimo** horiek **homofonoak** eta **homografoak** direla.
- Baina gerta daiteke berdintasuna bakarrik idatzizko edo ahozko mailan egotea. Orduan bai zehaztu behar dela homofonoak bakarrik edo homografoak bakarrik direla.

22

Semantika

- Berdintasuna fonologikoa bakarrik denean, baina ez ortografia aldetik, **homofonia**:

Adib.: *vaca* *baca*
votar *botar*
vasto *basto*
papa *Papa*
ceiling *sealing*
meat *meet*

- Berdintasuna ortografikoa denean, **homografoak**:
Ingelesean, adib.: *read*, *live*.

23

Semantika

2) SEMANTIKA KONPOSIZIONALA

Konposizionalitatearen Hatsarrean oinarritzen da (Frege):

Adierazpen konplexu baten esanahia:

Adierazpen konplexua osatzen duten unitate sinpleen esanahiaren eta beraien arteko erlazio sintaktikoaren funtzioa.

24

Semantika

- Aditz baten argumentuek (subjektua, objektu zuzena, zehar objektua) edo baita izen baten argumentuek (izenaren osagarriak) funtzio semantikoak dituzte, aditzaren edo izenaren esanahiaren ondorioz.
- Predikatu batek bere esanahia osatzeko **argumentuak** behar ditu.

erosi aditzak bi argumentu behar ditu: zer erosten den (objektu zuzena) eta nork erosten duen (subjektua).

Berdin *irakurri, ekarri, irakurri, jarri, edan, jan, ...*

25

Semantika

- **Funtzio semantikoak, paper semantikoak edo paper tematikoak.**

26

Semantika

Agentea:

Ekintza egiten duena (borondatea inplikutzen du)

Keparen amonak kristala apurtu zuen.

Jonek bere kotxea saldu zuen.

Auzokoak zarataz kexatu ziren.

Politikoek ez dute nahi ezer aldatu.

27

Semantika

Gaia

Ekintza jasotzen duena (zentzu fisikoan eta figuratiboan, sortuz ere)

Keparen amonak kristala apurtu zuen.

Jonek bere kotxea saldu zuen.

Itsasontzia hondoratu egin zen.

Aimar erori egin zen.

Ibonek liburua irakurri zuen.

Aitak gutuna idatzi zuen.

28

Semantika

Esperimentatzailea:

Sentsazio bat (fisikoa edo mentala) esperimentatzen duena. Nahigabekeria inplikutzen du. Aditz psikologikoekin batipat.

Pakori beherapenak gustatzen zaizkio.

Juanek sariarekin egin zuen amets.

Mirenek ez zuen gogorik han egoteko.

Julenek izozkiak gorrotatu egiten ditu.

Peruk arrano bat ikusi zuen.

Helenak zarata arraro bat entzun zuen.

29

Semantika

Helburua:

Ekintza norentzat gertatzen den, edo nora.

Aitorrek liburua Mireni eman zion.

Lisak gutuna Davidi entregatu zion.

Koldok mezua bere anaiari bidali zion.

Kepak Frantziara bidali zuen dirua.

Eukene Italiara doa laister.

30

Semantika

Iturria

Mugimenduaren sorpuntua.

*Teresa bere gelatik atera zen.
Jon Huelvatik abiatu zen.*

31

Semantika

Kokapena

Ekintza jaso duen argumentuaren kokapena.

*Paulek poltsak mahai gainean jarri zituen.
Paperak kutxa barruan sartu zituzten.*

32

Semantika

Kausa:

Ekintza edo egoera sortarazten duena.
Borondaterik gabekoa.

*Eguzkiak tomateak lehortu zituen.
Elurrak bertan behera utzi zuen partida.
Euriak guztia izorratu zuen.
Haizeak parkeko zuhaitzak errotik atera zituen.*

33

Semantika

Tresna:

Eragileak zerbait gertarazteko erabiltzen duena.

*Zigorrek kortxo-kentzekoa erabili zuen.
Pellok mailuarekin jo zuen iltzea.*

34

Semantika

1. El edificio fue diseñado por un arquitecto muy famoso.
2. El arquitecto se siente muy orgulloso.
3. Preparamos la comida.
4. Álvaro se tomó todo el vino.
5. La puerta se abrió con la brisa.
6. El aire movía la cortina.
7. Los solicitantes llevaron los formularios al mostrador.
8. Colocó la ropa en el armario.
9. Los alumnos entregaron la tarea a la profesora.
10. Alberto emigró a Islandia.
11. El ruido asustó a María.
12. Los muchachos tienen hambre.
13. El poema fue enviado desde Sevilla.
14. Al autor le regalaron una flor.

35